

Erasoei ekin eta bi egunera, Pentagonoak jakinarazi zuen hasierako jomugen %85 suntsitu zituela eta aurki erasoaren bigarren faseari ekingo ziola. Hasieran ofentsibari *Justizia Mugagabea* deitu zioten, baina aliatu arabe eta musulmantzat izen hori iraingarria zenez —musulmantzat soilik Alak berma dezake mugarik gabeko justizia—, aste batzuk igaro ondoren grazia berriaz bataiatu zuten: *Askatasun Iraunkorra*. Erasoa eraso, Al Kaedak esan zuen AEBei erasotzeko ekin-tzaile suizida gehiago zituela.

Erasoek segitu zuten eta azaroan, AEBetako airekoen laguntzari esker Iparraldeko Aliantzak Mazar-i-Sharif hartu zuen. Egun gutxira Kabul eta beste hiri nagusi batzuetan sartu zen. Talibanak erretiradan ziren eta hego-ekialdeko gune mendi-tsueta jo zuten, handik borroka jarraitzeko eta askok Pakistango muga zeharkatzeko.

### Gobernu berrirako prestaketak

Abenduaren 5ean Bonnen (Alemania) behin-behineko gobernu bat hitzartu zuten Afganistango oposizioako taldeek. Hilarren 7an Kandaharren amore eman zuten talibanek. 22an paxtu etniako Hamid Karzai 30 kideko behin-behineko gobernu buru izendatu zuten. Bien bitartean, AEBek eta Erresuma Batuak Afganistanen erabili luku bonbak debekatzeko presioa jasotzen ari zen Londres.

Herrialdean bakea mantentzeko nazioarteko lehen indarrak iritsi ziren 2002ko urtarrilean. Apirilean Afganistango errege ohi Mohamed Zahir Sha Kabulera itzuli zen. Alabaina, Shak argi utzi zuen ez zela itzuli monarkia berrezartzera, herrialdea berreraikitzen eta gobernu osatzen laguntzera baizik.

### PAKISTANEN ROLA

## Jokaldi azkarra

Talibanek Afganistanen boterea hartu aitzin eta ondoren Pakistani haiek trebatu eta azpiegituraz zein militarki laguntzea leporatu zioten. Pakistango, Saudi Arabiako eta Arabiar Emirerri Batuetako gobernuak soilik ezagutu zuten talibanen gobernu. Alabaina, irailaren 11ko erasoaren ondoren Pervez Musharraf presidente pakistandarrak hautatu behar izan zuen: talibanak laguntzen segitu edo AEBen aliatu bilakatu. 1998ko maiatzean proba nuklearrak egin zituenetik AEBek ezarritako zigor ekonomiko zorrotzei aurre egin behar izan zien Islamabadek.

Irailaren 11ko ondoren aukera paregabea eskaini zion Musharraf nazioartean *errehabilitatzeko*. Hala, AEBen eta bere aliatuekin lerratzea erabaki zuen, Osama Bin Ladenen Al Kaedaren eta talibanen kontra aritzeko.

Hautu horrek ondorio ekonomiko onuragarriak ekarri dizkio Pakistani. Lehenik, zigor ekonomikoak altxa eta Nazioarteko Diru Funtsekin dirua mailegatzeari ekin zion berriz. Dirua sendotu eta inbertsiogileek konfiantza berreskuratu zuten. Halere, ekonomia ahul dago oraindik, Indiarekiko tirabirak, idortea eta esportaziorako merkatu ahulak direla eta. Gainera, Gobernuak islamistei aurre egin behar die. Hauek ez diote barkatzen AEBekin lerratu izana.



LUKASZ TRZCINKI / RZECZPOSPOLITA - EPA

**UMEAK ERE BIKTIMA.** AEBetako Armadak eta aliatuek Afganistanen abiatu gerraren ondorioz hildako umea —bere birbiloba— lurperatzeko prestatzen ageri da aitona afganiar bat.

Al Kaedako eta talibanen indarrak Afganistandik erauzteko eta beren armategiak eskuratzeko xedearekin AEBetako Armadak *Anakonda Operazioa* abiatu zuen eskualde mendi-tsueta. Tarteka gertatzen ziren segada eta tiroketetan hainbat zibil eta soldadu estatubatuar hil ziren. Nazioarteko indarrak minak indargabetu eta kentzen zebiltzan hainbat eremutan.

### Afganistanen berreraikuntza

Ekainean Loya Jirga edo Asanblea Nagusia Afganistango etnia eta mugimendu politiko ezberdinetako 1.500 bat ordezkari —tartean hainbat emakume, zeintzuk talibanen garaian politika debekatua zuten— behin-behineko parlamentua hautatu eta Hamid Karzai Afganistango presidente izendatu zuten. Gainera, 2004an hauteskundeak egitea erabaki zuten. Gobernuak, baina, ez du lan erraza egiteko. Herrialdeko azpiegitura suntsituak berreraiki, errefuxiatuen itzulera antolatu eta hauei elikagaiak bermatu... Halaber, etnia eta gudaburu ezberdinen arteko liskarrak eta oreka aintzat hartu behar ditu. Izan ere, gudaburu ezberdinek agintzen dute benetan Afganistango hainbat hiri eta eskualdetan.

Uztailaren hasieran *Haji Abdul Kadir* presidenteordea atentatuan hil zuten Kabul. Herenegun, Kabul bonba auto bat lehertzean gutxienez 30 lagun hil eta 50 bat zauritu zituzten. Egun berean Karzai bere kontrako atentatu batetik onik ateratu zen Kandaharren. Segurtasuna bermatzea Gobernu berriaren beste erronka bat izango da. Eta herrialdea ia hutsetik berreraikitzeko nazioarteko laguntza ondo kudeatzea. Baita giza eskubi-deen eta emakumeen egoera hobetzea ere. Lan franko.

J.M.S. | DONOSTIA

II. Mundu Gerran airekoen erabilera masiboarekin gerra egiteko modu bortitzago eta hilgarriagoa jarri zuten abian. Orduan bezala, harrezkero izan diren gerretan zibilak izan dira erasoak gehien pairatu dituztenak, askotan erasotzaileek hala nahi izanda. *Gerran denak balio du*, dio esaerak. Eta zibilek, eraso, liskar eta gerren *zehar kalteak*, kulparik izan gabe militarren erabakiak pagatzen dituzte. Hitz pare magikoa *zehar kalteak*, nork erabiltzen duen, betiere. Afganistango gerra ez da salbuespena izan.

AEBetako Armadak Afganistanen abiatu ofentsibak, *zehar kalterik gabeko goi teknologia* oinarri, izenak beti izana egiten ez duela berretsi du. Izan ere, ehunka zibil hil dira AEBen hegazkinen zein solda-

duen tiroen ondorioz. *The New York Times* egunkariaren arabera, 400dik goiti afganiar hil dira; Global Exchange giza eskubi-deen aldeko erakundeak, aldiz, hildako zibilen kopurua 812koa dela dio. Zibilen kontrako erasoak izandako 11 hiri eta herritan egin ikerketa batek dioenez, ustezko aliatu afganiarrek nahita informazio okerrak ematen zizkieten maiz komandante estatubatuarrei, erasoak arerio afganiarrek zeuden herrien kontra egiteko.

Afganistango gerraren hasiera-hasieratik izan dira zibi-

len hilketak, eta komunikabide askok eta militarrek *zehar kalteak* iritzi diete.

### Erasorik garrantzitsuenak

2001eko urriaren 9an NBE Nazio Batuek baieztatu eta kritikatu zuten aliatuen erasoaren ondorioz NBEko lau langile afganiar hil zirela hiriburuan. Abenduaren 21ean Kabulera Hamid Karzai agurtzera konboi batean zihoazen tribuetako lider zaharrei eraso zieten AEBetako airekoek; gutxienez 65 lagun hil zituzten. Zortzi egun geroago, herri oso bat suntsitu

zuten abioi estatubatuarrek: Niazi Kala, Kabuldik hegoaldera 80 kilometrora. NBEko ele-dun baten ahotan, 52 lagun hil zituzten bertan; bertakoek, hatatik, kopurua halako bi izan zela zioten. AEBetako buru militarrek ez zuten inoiz onartu bertan biktima zibilik izan zela.

2002ko urtarrilaren 23an AEBetako soldaduek 16 pertsona hil eta 27 atxilotu zituzten, Al Kaedako kideak zein talibanak zirelakoan. Apirilaren 16an AEBetako pilotu batek 250 kiloko bonba bat jaurti zuen gaez tiro ariketak egiten

# Zibilak ere jomuga

II. Mundu Gerran abiatu zen gerra egiteko moduak zibilei erasaten die gehien, eta hala izan da Afganistanen ere; 'zehar kalteak' dira

ari ziren soldadu kanadar batzuen aurka; lau hil eta zortzi zauritu zituen.

Gertaerarik deigarrienetako bat Oruzgan eskualdeko Kakarak herrian izan zen; ezkontza bat ospatzen ari ziren zibil batzuen kontra bonbak jaurti zituzten AEBetako airekoek uztailaren 48 bat lagun hil —tartean, familia bereko 25 kide— eta 111 zauritu zituzten. Pentagonoak esan zuen abioiei lurretik tiro egin zietela eta horri erantzunez jaurti zituztela bonbak. Aste batzuk geroago, ordea, Pentagonoak onartu zuen erasoan zibilak hil zituela.

Nolanahi ere, zenbait leku-ko jakinarazi zuten eraso gertatu eta gutxira AEBetako soldaduak eta aliatu afganiar erasoaren gunera joan zirela eta froga bezala erabil zitezkeen aztarrenak biltzen eta ezabatzen jardun zutela.